



## **Berorren Maiestatearen Gabonetako Mezua**

2020ko abenduaren 24a

Gabon.

Gabon-gau honetan zuengana natorkizue, pandemiaren kontura aparteko egoeran gaudela.

Zuetariko askok ezin izan duzue zure senideekin elkartu, osasun-neurriak direla-eta; eta milaka etxetan bete ezin duzuen hutsa duzue, senideen heriotza dela-eta. Hildako horiek gogoratu nahi ditut gaur, hunkiturik eta errespetu osoz. Oroitzapen horiek gure bihotzak sentimenduez betetzen dituzte. Une honetan ere herritar asko gaixotasunaren eta horren ondorioen aurka borrokatzen ari zarete, etxetik, ospitaletatik edo zahar-egoitzetatik. Zuei bereziki indarra eta kemena bidali nahi dizuet gaur.

2020. urtea gogorra eta zaila izan da. Birusa geure bizitzan agertu da eta sufrimendua, goibeltasuna eta beldurra ekarri dizkigu. Geure bizimodua eta lana aldatu ditu eta ekonomian sekulako eragina izan duelarik, enpresa ugari geldiarazi edo suntsitu ditu.

Herritar eta familia askok langabeziaren eta egonkortasunik ezaren estutasuna jasaten duzue; oinarrizko beharrak asetzeko estutasuna duzue; edo zeuen bizitza osoa negozio batean eman eta gero, tamalez alde batera utzi behar izan duzue. Horregatik, gaur etxe askotan ulergarria da adorerik eza eta mesfidantza aurkitzea.

Hala eta guztiz ere, bizitzen ari garen krisialdiari erantzuna ez digu adorerik ezak edo mesfidantzak ekarriko. Egoera larria da. Hala eta guztiz ere, ausardiaz aurre egin behar diogu etorkizunari, geuregan segurtasunaz, elkarrekin egin dezakegunaz, kemenaz eta itxaropenaz. Geure herrialdean eta bizikidetasun demokratikoaren ereduan konfiantza osoa izan behar dugu.

Horretarako arrazoiak ditugu: azken urteotan zailtasun larriak izan ditugunean, beti gainditu egin ditugu. Eta egungo egoera ez da ezberdina izango, birusak eta krisialdi ekonomikoak ez gaituztelako garaituko.

Osasun-egoerari dagokionez, argi dago gaixotasun hori menderatzeko zientzia eta ikerketa behar digula. Birusaren aurkako tratamendu berriek eta martxan dauden txertoek itxaropenak handitu dituzte. Baina, bitartean, zeregin asko ditugu.

Norbanako erantzukizuna ezinbestekoa da, birusari aurre egiteko tresna baliagarriena baita. Horregatik erne ibili behar dugu, arreta galdu gabe.

Sanitarioei berriz ere eskerrak eman behar dizkiegu egin duten lan izugarriagatik, aparteko profesionaltasunagatik eta gaixoenganako gizatasunagatik. Birusaren lehenengo erasoari aurre egin zioten, muturreko egoeran eta ospitale batzuk gainezka zeudenean. Gaur egun oraindik borrokan jarraitzen dute, bizkarrean zama emozional eta fisiko handia daramatela. Adorez eta indarrez jarraitzea eskatzen diegu, gure osasuna zaintzen segi dezaten.

Beste arazoa eta erronka krisialdi ekonomikoan dugu, eta batez ere, horrek ekar dezakeen krisialdi sozialean. Pertsona bakoitza oso garrantzitsua da. Beraz, pertsonak eta familiek gure ardura nagusia izan behar dute. Eta bereziki gazteek: beren langabezia tasa arras handia da, eta ezin dute egoera latz horren galtzaileak izan. Gazteek prestakuntzarik egokiena merezi dute, pertsonalki eta profesionalki hazteko eta beren proiektuak aurrera ateratzeko. Espainiak ezin dio belaunaldi galdu bati aurre egin.

Pandemiaren ondorioz ahulenak babestea eta sortu edo areagotu diren ezberdintasunen aurka borrokatzea duintasun kontua da, eta erkidego politiko berbera osatzen dugunon betebeharra. Baina ekonomia berreskuratzeaz kezkatu behar dugu ere.

Eta horretarako enpresa-, ekoizpen-, industria- eta zerbitzu-egiturak indartzea ezinbestekoa da. Gure enpresen esker ona, horiei laguntzea, azken hilabeteotan hainbeste sufritu duten langile autonomoen eta merkatarien babesa; horiek guztiak ezinbestekoak izango dira geure herrialdeak behar dituen lanpostuak sortzeko. Beraz, ekonomiaren bultzada, egonkortasun eta konfiantza argiko etorkizuna dakarten oinarriak sendotu behar ditugu, inbertsioa eta lanpostuen sorrera sustatzeko.

Aurre egin beharreko erronka sanitarioak, ekonomikoak eta sozialak oso handiak dira... Baina gainditu ditzakegu. Horiek gainditzea herrialde osoaren helburua da, eta guztiok horretarako elkarrekin lan egin behar dugu. Herritarrak garela, derrigorrez konpromisoa hartu behar dugu: geure buruarekiko, gainerakoekiko eta herrialdearekiko.

Eta horretarako esfortzu kolektibo handia ezinbestekoa da, bakoitzak ahalik eta hoberen lan egiten jarrai dezan, bere erantzukizunen eta gaitasunen arabera.

Estatu mailako esfortzu hori egiteko garrantzitsuena badugu: pertsonak. Badugu milaka herritarren adibidea, gainerakoentzat lan egin dutenak, azken hilabeteotan sufrimenduz, konpromisoz eta eskuzabaltasunez aritu direnak. Pertsona horiek harrotasunez bete behar gaituzte, gure hobetzeko gogoak indartzen baitituzte.

Erreginak eta nik hori guztia pertsonalki ikusi dugu azken garai hauetan. Landan nahiz itsasoan; herrietan nahiz hirietan; merkatuetan, lantegietan... Herrialde honen kemena eta indarra ikusi dugu. Espainia makurtu gabe mantendu duen gizartearen tentua hauteman dugu, eragozpenak eragozpen.

Biok irudi berbera dugu buruan: milaka herritar, egoera txarraren aurrean borrokan eta erresistentzian inoiz baino elkartuago aritu den gizartea ordezkatzeko; erakunde solidario eta eraginkorrak dauzkan gizartea, inor bakarrik eta babesik gabe sentitu ez dadin; azken hilabete latz hauek zuzentasunez, arduraz eta baretasunez gainditu dituen gizartea.

Beraz, gizarte indartsua eta Estatu sendoa ditugu. Garai honetan zerbitzu publikoek, oinarrizko zerbitzuek eta funtsezko sektoreetako enpresek ongi funtzionatu dute, eta beren baliabide guztiak zabaldu dituzte. Hobetu eta indartu beharreko alderdiak nabarmendu ditu pandemiak, baina Estatu aurreratua garela, sendotasunak erakutsi ditu ere. Horrela ikusi dugu, adibidez, indar armatuen, segurtasun kidegoen, babes zibilaren eta larrialdi-zerbitzuen eraginkortasunean eta gogoan, eta beste langile publikoen artean ere bai. Horiek guztiek bokazio argia eta gizartearekiko adostasuna erakutsi dute.

Halaber, krisialdiari aurre egiteko Europa ezinbestekoa da. Europar Batasuna gure alde dagoelarik, pandemiaren aurrean ekonomiaren jasangarritasunaren eta berreskurapenaren aldeko konpromisoa hartu du. Europar Batasunak aurreratzeko aukera historikoa eman digu. Garai berri bati hasiera eman diogu, non Espainiak proiektu komun batekin bat egingo duen, geure ekonomia modernizatzeko; industria-, teknologia- eta ingurumen-iraultza berriari gure ekoizpen-egitura egokitzeko. Eta Europar Batasuneko kide garela, munduaren aurrean gure paper kolektiboa anbizioz eta kohesioz sendotu.

Eta batez ere, bizikidetasun demokratikoaren sistema dugu. Garai honetan pandemiak eta bere ondorio ekonomiko eta sozialek ziurgabetasun handiak ekarri dizkigute, baina Konstituzioak bermatu egin ditu bizitza ikusteko dugun modua eta gizartearekiko eta gizakiarekiko dugun ikuspegia; gizakiaren duintasuna, eskubideak eta askatasunak. Guztiok errespetatu behar dugu Konstituzioa, hori baita egungo bizikidetasun sozial eta politikoaren oinarria. Geure historian demokraziaren eta askatasunaren arrakastaren froga da, eta horiek bermatzeko funtsa.

Ezin dugu ahaztu demokrazian zehar erdietsitako aurrerapenak eta hobekuntzak herritarren arteko bateratze eta adostasunaren emaitza direla, urte asko liskarretan ibili eta gero. Etorkizunera elkarrekin begiratzeko nahiaren emaitza dira, balore demokratikoek bateratuta; izpiritu bateratzaileak, aniztasunaren eta ezberdintasunen errespetuak eta hitz egiteko eta akordioak erdiesteko gaitasunak bateratuta. Beti bizirik dauden printzipioak dira.

Eta gure printzipio demokratikoekin eta legeak betetzearekin batera, gure gizartearen erro diren balore etikoak babestu behar ditugu.

2014. Urtean, Gorte Nagusietako aldarrikapenean, herritarrek gure jokabideetan espero dituzten printzipio moral eta etikoak aipatu nituen. Eta salbuespenik gabe guztiok jarraitu behar ditugun printzipioak aipatu nituen ere: egoera eta izaera ororen gaintetik daudenak, baita pertsonen edo senideen gaintetik ere.

Halaxe uste izan dut, nire sinesmenen arabera, eta estatuburu naizela nire erantzukizunak halaxe hartzen ditut, lehenengo egunetik nire erregealdiak inspiratzen duen izpiritu berritzailearekin.

Beti uste izan dut Espainia aparteko herrialdea dela, eta izugarritzko aberastasun eta aniztasun kulturala daukala. Belaunaldi askoren esfortzuari esker mendetan zehar eraikitako herrialdea da. Bere historia, garai luze batean zehar, munduko historia izan zen.

Herri honek ez du amore ematen, eta garai txarretan ez du etsitzen. Egoera hau gaintitzea ez da erraza izango, etxe bakoitzean hori ongi dakizue. Baina badakit aurrera aterako garela. Esfortzuaz, baturik eta solidaritatez, Espainiak aurrera egingo du. Guztiekin eta guztiontzat. Eta Erregea naizela, guztiekin eta guztiontzat egongo naiz, nire erantzukizuna eta ustea delako eta nire konpromisoa delako, zuekiko nahiz Espainiarekiko.

Ez dago zalantzarik, 2021. urtea 2020. urtea baino hobea izango da. Ahal den neurrian lantokien, eskolen, kaleen eta auzoen normaltasuna berreskuratuko dugu. Dendak, merkatuak, tabernak, zinemak, antzokiak... Geure gizartea eratzen duen egunerako bizitza berreskuratuko dugu.

Hori da guztiok nahi duguna. Eta halaxe izango dela dakigula, Erreginak, Asturiasko Printzesak eta Sofia Infantak eskerrak eman nahi dizkizuegu aurten erakutsi diguzuen estimuagatik eta babesagatik, eta Gabon zorientsuak eta itxaropenez beteriko 2021. urte bikaina opa dizkizuegu.

Eguberri on. Bon Nadal, Boas festas.